

Euskal Kulturgintzaren Transmisioa

Albisteak

Abian da EKTren laugarren edizioa, Aretxabaletako kanpusean

2012/10/30

Urriaren 10az geroztik martxan da "Euskal Kulturgintzaren Transmisioa" aditu-tituluaren laugarren edizioa, HUHEZIK Aretxabaletan duen kanpus berrian. Aurten, 24 ikaslek eman dute izena orotara, 11 emakumezko eta 13 gizonezko. Gipuzkoarrak dira horietatik 16, bizkaitarrak sei eta arabarrak bi. Ohi modura, asteazkenetan izaten dira eskolak, 15:00etatik 20:00ak ingurura bitarte, eta euskal kulturgintzako aditu zein artituen testigantzen bueltan antolatzen dira.

Ikastaroak badu lantzen diren hizketagaiak, kezkak eta gogoetak ikasgelatik harago hedatzeko bokazioa, eta hori dela eta, hainbat komunikabide ari dira eskoletan gertatzen denaren jarraipen zehatza egiten:

Euskadi Irratiko "Jakin minez" saioan Igotz Alkortak hizlariei eginiko elkarrizketa zabalak izaten dira entzungai ostegunero, 21:00etatik aurrera (aurreko edizioetako elkarrizketak entzuteko sakatu EKT1, EKT2 ala EKT3).

Gisa berean, Berria egunkariko kultura sailean "Arbelari begira" deituriko zutabea argitaratzen dute asteartero, eta bertan Nagore Amondarainek eta Jon Artanok klasean jasotzen dituzten inpresioak papereratzen dituzte (aurreko bi edizioetako zutabeak irakurtzeko sakatu EKT2 ala EKT3).

Azkenik, Berria Telebistan jartzen dituzten bideo laburrak egiten ditu Kepa Matxainek, eta balio izaten dute gonbidatuek jorratutakoari errepasso arin bat emateko (aurreko bi edizioetako bideo laburrak ikusteko sakatu EKT2 ala EKT3).



HUHEZIK Aretxabaletan duen kanpus berria